



# First Pitch

## 2025. KREA BIDASOA

JARDUERA HAU MARTXOAREN  
27AN, OSTEGUNA, BURUTUKO DA KREA  
BIDASOA AMAIERA GISA. INGURUKO  
ENPRESEK EDO EKIMENEK BEREN  
PROIEKTU-IDEIAK, SORMEN-ENPRESAK,  
EGIN DITUZTEN LANAK EDO IZAN DUTEN  
IBILBIDEA AURKEZTEKO AUKERA IZANGO  
DUTE. TENIDO.

EMAN IZENA  
URTARRILAREN  
28a BAINO  
LEHEN!  
(14:00AK  
ARTE)

### FIRST PITCH Liluratzen duten kontaktak

### PARTE HARTZEKO INTERESA BADUZU:

Enpresen eta ekimenen aurkezpenak KREA Bidasoaren esparruan sortu ziren 2012an, eskualdeko enpresek eta pertsona ekintzaileek beren proiektuak eta lanak jendaurrean aurkezteko aukera izan zezaten formatu erraz, azkar eta oso bisualean. Mota guztietako proiektuak aurkezteko erabiltzen da formatu hau: sortu berri diren enpresak, herritarren ekimen berriak, bidaia inspiratzaileak, kezkak edo hausnarketak, sukaldaritzako errezetak, etab. Ez dago adin mugarik, ezta hitz egiteko eduki zehatzik ere, partekatzeo zerbait duen orok, inspiratzeko eta hunkitzeko moduko zerbaitek, lekua dauka KREA Bidasoan.

Ekimen informala da, dibertigarria, ideiak eta gogoetak partekatzeo sortzaileen biltokia. Beren lana jendaurrean erakutsi nahi duten baina komunikabide masiboetarako sarbiderik ez duten gazteentzako aukera da, irakatsi beharreko obra duten baina galeria bat betetzeko nahikoa ez den artistentzako aukera. Azken finean, plataforma ezin hobea bere lana erakzteko eta publikoarekin partekatzeo.

Formatuak ideia simple bat du oinarrian: 20 irudi x 20 segundu.

Partehartzaile bakoitzak 20 irudi proposatzen ditu, bakoitza 20 segundoz proiektatzen da eta horien gainean bere aurkezpena egiten du.

Formatu honi esker, aurkezpen erakargarri, zehatz eta normalean, dibertigarriak egiten ahal dira.

Jar zaietez harremanetan Bidasoa bizirik-ekin:

Tel: 943 50 96 00 // 943 50 95 84

E-maila: [ekintzailtza@bidasoa-activa.com](mailto:ekintzailtza@bidasoa-activa.com)  
eta bidali ondorengo datuak:

- Harremanetarako izena.
- E-maila eta telefonoa.
- Proiektuaren izena.
- Proiektuaren deskribapen laburra eta ikuspuntua.
- Aurkezpenaren hizkuntza.

*\*Urtarrilaren 31n jakinaraziko dugu zeintzuk diren KREA Bidasa 2025.ean aurkeztu ahal izango diren proiektuak. Hautatutako pertsonen argibideak emango zaizkie 20 irudiak bidaltzeko eta aurkezpenak prestatzeko. (Hautatutako pertsonen bilera baterako deia egingo zaie otsailaren 5erako.)*

### AURKEZPENETARAKO ZENBAIT IDEIA

Enpresa sortu berri bat aurkeztea, enpresa baten ibilbidea eta egindako lanak aurkeztea, norberak sortutako artelanak aurkeztea, laguntza behar duen herritar-ekimen bat aurkeztea, beste sormen-enpresa batzuentzat baliagarriak izan daitezkeen esperientziak edo hausnarketak aurkeztea, etab.

Modu positiboan baloratuko dira proiektu edo ikuspegi sortzaile, berritzaile edo harrigarria duten proposamenak.